

Musikaren bidebanatzeak



Ritxi AIZPURU
Musika argitaratzailea

Bat bitan banatzen da», dio Maok. Beraz, bi lautan banatuko da, eta horrela esponentzialki infinitura. Baina alderantzizko modu proportzionalan ere joan daiteke. Musika-eritmo askotatik bat sortzea. Musikaren bidebanatze bakoitza esponentzialki eta proportzionalki beste doinu askoren sorlekua izan daitekeelako. Baina bidegurutzak ez daude betidanik hor kokatuta. Bi bide, orokorrean, paraleloan badoaz, ez da bidegurutzerik izango. Bat gora badoa eta besteak bidea zeharka egi-

ten badu, posible da inoiz bidegurutzea sortzea, punturen batean gurutzatzea, eta une hori bera beste doinu baten hasiera izatea.

Gustu zeharo desberdinak dituzten bi musikariren arteko bat-batekoak genero berri baten atarian utzi ahal gaitu eta. Nondik aterako zen bada triki-popa? Edo bertso-hopa? Jarduera desberdinen talken emaitzak izan dira, eta estiloaren izena gero etorri zen; gainera, triki-popa izena ez diofe jarri estilo hori egin duten musikariek. Musika kritikariren baten hausnarke-

taren ondoren etorri dira estiloen izenak, edo diskoetxeko bati bururatu zaiolako. Baina beste askotan, beste inork baino lehenago, musikariak berak jarri dio izena bere musika-eginkizunari: burrokanroll. Animaliekin jarraituz, Pottoka kantariak erabili zuen «nekazaritza-punk». Euskal folk-rock progresiboa, musika tropeteroa, euskal funk erradikala... Beldurrak sor daitezke bidegurutzeen aurrean. Nondik joko gaitu beldurrak? Beldurrak, maiz, desaktibatzaileak dira. Nahiago ditut beldur erakitzaileak. Mozalik gabekoak.

«Irati filmaren artea», pantailaren atzeko lana liburuan


Arrakastatsua izan da Paul Urkijo zinema zuzendariaren «Irati» filma. Zenbait festibaletan eta zinema areto askotan eman ostean, liburu formara iritsi da orain, filmaren lan artistikoa azaltzeko ahaleginean. Atzo goizean aurkeztu zuen argitalpena Urkijok Donostian: «Irati filmaren artea».

Irati MATEO | DONOSTIA

«Zinea gezurra da»; baieztapen sendoa bota zuen Paul Urkijo zinema zuzendariak atzo, «Irati filmaren artea» liburua- ren aurkezpenean. Pantailan ikusten dugunaren atzeko lana ekarri nahi izan du argitara «Irati» filmaren lan artistikoa bildu duen liburua-ekin. Ez da gezurra pantailan ikusten dugun guztia, baina zuzendariak baditu sekretuak, eta batez ere badu itzaleko lana; horiek kontatu ditu 223 orrialdetan zehar. «Filmean gauza batzuk ez dituzu ikusten, eta liburua-ekin ikusiko dira», azaldu zuen.

Filmaren kolore paleta, kobazueloetako marrazkien bozetoak, jantzitegiko bitxi txiki- kienaren detaileak, filmean erabiltzen den euskara eta ber- rau ahoskatze modua... horiek guztiak jasotzen ditu liburuak. Filma egiteko erabilitako material guztia bildu du Urkijo- jok: «Pelikulak kapa pila bat ditu, matrioxkak bezalako film- mak egiten ditut, sinbolo eta sakontasun ikonografiko handi- koak». «Kapa» horietako bakoitza eskuzabal jarri du orain irakurleen eskura.

Koloreak, jantziak, irudime- na Kolore paletaren inguruko nondik norakoak jasotzen ditu atal batek. Aurkezpenean ere azaldu zuen zein kolore paleta eta zein estrategia erabili zuen: «Herriaren paleta urdinxka eta zerutarra, adibidez, kristaua



Paul Urkijo, «Irati» filmeko lan artistikoa biltzen duen liburua aurkezten. Gorka RUBIO | FOKU

eta patriarkala; ingurune natu- ralean udazkeneko tonu urre- karak dira nagusi eta landa- reen berdeak; ingurune paganoetako tonuen gaman, kolore urrekarak eta gorriak dira nagusi».

Orreagako batailari buruz- ko eszenak ikuslearen arreta eskuratzen dutenetakoa da, eta aurkezpenean Urkijok kontatu zuen aurrekontua izaten dela horrelako eszenak filmatzeko zailtasun nagusia: «Aurrekon- tuak ez du ematen bataila ba- te behar dituen figurante guz- tiak kontratatzeke; soluzio

artistiko bisualak erabili behar izaten ditugu». Plano sekuen- zia faltsu bat egin zutela aitortu zuen, eta ondoren, efektu bereziekin zeuden figuranteak biderkatzen zituzten.

«Sinbolismoa asko landuta- ko zerbait izan da; gure mitolo- giaren eta munduko mitolo- giaren sinbologiak lotzen ere saiatu gara», adierazi zuen Ur- kijok. Mari pertsonaia jarri zuen adibide gisa; izan ere, Mariri «zentralitatea eman eta omenaldia» egin nahi izan zio- la aitortu zuen. Bere iritziz, as- kotan, «ipuin erromantikoak»

kontatu izan dira Mariren in- guruan, eta berak beste ikuspe- gi bat eman nahi zion: «Alder- di antropologikoa erakutsi nahi nuen: Marik besarkatu ahal zaitu, baina baita akabatu ere. Ederra eta bortitza da aldi berean».

Kokaleku naturalak Zuzen- dariak argi zuen kokaleku natu- ralean lan egin nahi zuela, bere filmean natura ere prota- gonista delako. Aralarren, Ira- tiko basoan eta Oñatin filma- tu zuten, baita Huescan ere, baina hori ere garai batean

EUSKARA

Atal bakoitzean euskara ere nola moldatu zuen kontatzen du; tartean, aktoreei hitzak ahoskatzeke emandako jarraibideak jasotzen ditu liburuak. Aurkezpenean gomendio bat eman zuen: filma euskara batuko azpidatzielkin ikustea. Primeran plataforman dago ikusgai.

Nafarroako Erresumaren zati zenez, Urkijok irri artean esan zuen guztia Euskal Herrian fil- matu zutela.

Kokaleku bakoitzean landu beharreko atrezzoak, uneko al- daketez eta ondoren digitalki egin beharreko konponentez ere mintzatu zen Urkijo, bes- teak beste. Baina batez ere, ahalik eta eremu natural ede- rrenak bilatzeko egindako ahalegina egin zutela azpima- rratu zuen, eta liburuan ere hori azaltzen du; «tokia ede- rra denean, epika ematen dio eszenari».